



**34/2002 GOMENDIOA, URRIAREN 15EKOA, EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILARI EGINA, BEREZIAK EZ DIREN LANPOSTUETARA ATXIKITZEAN, IRIZPIDE OBJEKTIBOAK ERABILIKO DIRELA BERMA DADIN.**

**Aurrekariak**

1. Kexagilea EAeko administrazioaren administrazio-laguntzaileen kidegoko karrerako funtzionarioa da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean du destinoa, eta ez zegoen konforme administrazioak langileen alorrean burututako jarduera batekin.
2. Hutsik zegoen lanpostu bat esleitu zioten, jatorriz zuen lanpostuaren izaera berekoa: hau da, ez berezia, betetzeko prozedura eta destino-osagarri berberak zituena, herri berean.
3. Geroago, administrazioak bere erabakia aldatu zuen, eta zerbitzu-eginkizunetan lanpostu horren deialdian parte hartutako beste pertsona bati esleitu zion lanpostu hori, hark merezimendu gehiago zituelakoan; emaitza hori baremo ezezagun bat ezartzearen ondorio izango litzateke.

**Gogoetak**

1. Laburtu diren aurrekariak lehen aldiz aztertu ostean -izan ere, ez genuen argi ikusten administrazioaren jokaeraren oinarria-, bideratzeko onartu genuen kexa, eta espediente bat hasi genuen berehala. Espediente hori tramitatzean, gure lana behar bezala bideratzeko, sail horretara jo genuen informazio eske.
2. Erantzuna jaso eta edukia aztertu eta gero, zalantzak ez ziren argitu; beraz, berriro sail horri idatzi genion. Funtsean, hauxe adierazi genion hitzez hitz:

*"...Antes que nada, aclaremos que este organismo no ponía en tela de juicio las facultades que con carácter genérico pueda tener la Administración para la organización de sus servicios, sino que, cuando se preguntaba sobre la base de lo actuado, lo que se estaba pidiendo era una explicación acerca del fundamento jurídico de lo aplicado en concreto a este supuesto, en la medida en que los indicios de que disponíamos nos movían a cuestionar, siquiera de modo preliminar, lo desarrollado en el caso presente.*



*Estas primeras impresiones parece que se confirmarían, dado que, en función de los términos de la contestación, contaríamos con apoyo para incorporar los siguientes pronunciamientos:*

1. *En su momento hubo una adjudicación de la plaza disputada a la promotora de la queja.*
2. *Esta adscripción quedó posteriormente sin efecto; usando sus palabras: '...decidiendo la Administración revocar la decisión anterior...'*
3. *La revocación se habría llevado a cabo al margen de los procedimientos establecidos para la revisión de los actos administrativos; al menos, a nosotros, no nos consta.*
4. *Con la convocatoria en comisión de servicios de una plaza y, por tanto, en el marco de una cobertura temporal de la misma, es cuando aparece interesada otra funcionaria a la cual se le adscribe con carácter definitivo al puesto en cuestión; esto es, un proceso para asignar provisionalmente un puesto de trabajo se transforma en otro por el cual se produce una adscripción con carácter definitivo que a su vez comporta la revocación de la adscripción realizada previamente.*
5. *Por lo que respecta al baremo que sirve para determinar el mejor derecho, en términos de puntuación, de las aspirantes a una plaza, no vemos qué causa puede motivar que no se utilice como referente el procedimiento y baremos contenidos en la Orden de 26 de febrero de 2002 y en la Resolución de igual fecha, relativas a la cobertura transitoria en comisión de servicios o como personal funcionario interino, de puestos de trabajo; dicho de otro modo, cuál es o sería la alternativa que ustedes propugnan desde la perspectiva de una adecuación a los principios de igualdad, mérito y publicidad si se piensa que no existe o, por lo menos, nos es desconocido un baremo específico para las adscripciones que tratamos...".*

Idazkiaren bukaeran, alderdi horiei buruz zein iritzi zuen galdetu genion, eta baita ere -kexagileak aurkeztutako gora jotzeko errekursoaren ildotik- ea prest zegoen jarraitutako prozedura berriz aztertzeko, atzera joz eta lanpostua lortu nahi zuten interesdunek berdintasunez eta aurrez ezarritako baremo baten arabera beren aukera adierazteko unera eramanez jarduerak.



3. Erantzun moduan, kexagilearen gora jotzeko errekurtsioa ezesten zuen Erabakia bidali zigun administrazioak. Ebazteko orduan, ez ziren zehazki azaltzen bidalitako idazkiaren lehen hiru puntuetan aipatutako alderdiak -aurreko gogoetan eman dugu idazki hori-. Laugarren eta bosgarren puntuetako edukiei buruz, zera azpimarratu behar dugu: lehenik, oro har aipatu zuela uztailaren 28ko 6/1989 Legearen -Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa- 50.6 artikulua, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak sartua (*"Singularizatu gabeko lanpostuetan behinbetiko dauden funtzionariak, betetzeko prozedura eta destino-osagarri maila bereko beste lanpostu batzuetara atxiki daitezke, herri berean eta izaera berberaz; beharrezkoa izango funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duen organuak alde aurretik aldeko txostena ematea"*) (sic); eta gero, hauxe erantsi zuela: *"...teniendo en cuenta que en este asunto (...) lo que entendemos es una reubicación funcional por áreas administrativas (...), y dado que esta actuación entraría en lo que es una mera organización del servicio, es decir, dentro de la Potestad Organizativa de la Administración, reorganizando los destinos en función de las necesidades estructurales de cada unidad para el mejor funcionamiento de la actividad que el organismo tiene encomendada, debemos de llegar a la conclusión que el acto recurrido es conforme a derecho, no habiéndose vulnerado ninguna normativa. Es más, a pesar de la posible libertad que tenía la Administración para efectuar ese cambio sin tener en cuenta ninguna otra circunstancia, la Administración valoró los méritos de ambas solicitantes para la concesión de ese cambio..."*.
4. Erantzun hori eta eskura ditugun elementu guztiak oinarritzat hartuta, administrazioak ez duela bere iritzia aldatu nahi ondorioztatzen da, nahiz eta ez dien behar bezain zehatz ihardetsi guk helarazitako gogoetei, eta ez duen behar bezala arrazoitu bere erabakia. Beraz, kasu honetan, badirudi interesdunaren alde egindako lanpostu-esleipena baliorik gabe utzi zela, baina ez zirela bete azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak- 102. artikuluan eta hurrengoetan administrazio bidezko egintzak berriz aztertzeko ezartzen dituen arauak, eta ez zirela behar zen moduan bete interesdunen merezimendu eta gaitasunari buruzko printzipio objektiboak, hezkuntza-administrazio horren jokaeran arbitrariotasun akatsik ez dela izan ziurtatu ahal izateko.
5. Behin puntu honetara iritsita, administrazioak legez kanpo jokatu duela uste dugunez, gomendio berezi bat egitea pentsatu dugu, kasu honetan izandako jokaera zuzentzeko asmoz. Hala ere, -egindako oharren argitan- sail horrek gomendioa betetzea erabakiko balu, ezin dugu ahaztu -gai honen egoerak beste



pertsona batzuegan eragina baitu- ziur asko beste pertsona batzuen aldeko eskubideak aitortzeko ekintza bat errebisatzen hasi beharko litzatekeela. Horregatik, hain zuzen, are zuhurrago jokatu behar dugu -baina ezinbestekoa den zorrotasunaz- gure eginkizunak betetzean, eta, horrela, jokoan dauden interes ezberdinak tentuz haztatu ondoren, eta etengabe administrazioaren jokaera hobetzeko helburuaren ikuspegitik, gomendio hori etorkizunari begira egitea erabaki dugu.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**34/2002 GOMENDIOA, urriaren 15koa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egina**

Lanpostu bati behin betiko atxikitzeko prozeduretan, irizpide objektiboak ezarriko direla berma dadila, batez ere interesdunen merezimendu eta gaitasunari dagokienez, jatorriz mota bereko lanpostua duten karrerako funtzionarioen artean (berezia ez den lanpostua, betetzeko prozedura eta destino-osagarri berak dituen, eta herri berean), hezkuntza-administrazio horren jokaeran arbitrariotasun akatsik egon ez dadin.